

Spain is different. Espainiako kostaldearen arpiatzea

Unai Fernandez de Betoño °



Gako-hitzak:
masa-turismoa,
frankismoa,
garapenkeria,
lurralde-antolakuntza,
espekulazioa

Francoren garaiko garapenkeriatik Felipe Gonzalezen aroko pelotazo azkarrera. Jesus Gilen Marbellatik, Francisco Campsen Valentziara. Granadako Almuñecar, Mallorcako Andratx, Kantabriako Arnuero, Bartzelonako Santa Coloma de Gramanet... eskandaluen zerrenda ia amaigabea da. 2009an 625 inputatu zeuden hirigintza-ustelkeria egotzita (1); kasu horietako asko eta asko, itsasaldean.

Legaltasun sakrosantuz mozarrotuta ere ekologia-delitu ugari gauzatzen da zigorgabetasun osoz. Espainiaren administraziopeko Euskal Herria ez da salbuespen, eta EAEko kostaldea horren lekuko dugu: hirigintza-hedapenak paduren zein Biotopoen gainean, koke-plantak eta industria-portuak Batasunaren Garrantzizko Leku gisa sailkatutako ibaiadar zein itsaslabarretan, museo handinahiak eta industrialdeak Biosferaren Erreserban...

Espainiako Estatuko kostaldean eman den —eta oraindik ematen den— hirigintza-garapenak gertakari arras berezia osatzen du europar testuinguruan. Horixe frogatzen dute Europar Batasunak azken bost urteotan plazaratu dituen hiru ebazpen gogoangarriek, Espainiako itsasbaterreko hirigintza basatia salatzen dutenek. Saia gaitezen espekulazioaren kostaldea kartografiatzen.

Espainia bestelakoa da

Manuel Fraga Iribarne Espainiako Informazio eta Turismo ministro izendatu zuen Francisco Francok 1962an. Diktaduraren hasierako autarkia-garai anakronikoa gainditua zegoen ordurako. Demografiaren ezta bat egin zuen erregimenaren lehen irekiera-zantzuekin, eta garapen ekonomikoari —kapitalismoari— eman zitzaion lehentasun osoa. Horretarako, gorantza zihuan turismoaren industriad baliatu beharra zegoen, eta Fragak “*Espainia bestelakoa da*” lelopean *Ley de Centros y Zonas de Interés Turístico Nacional* (Interes Nazionalako

Turismorako Zentro eta Eremuen Legea) delakoa jarri zuen indarrean 1963an. Hazkunde ekonomiko azkarra helburu, kanpoko dibisen sarrera sustatu nahi zen eguzki eta hondartzaren truke. 60ko hamarkada bukatu baino lehen, turismoa Espainiako lehen industria nazionala izatera iritsiko zen.

Interes Nazionalako Turismorako Zentroak

Ekimen turistikoa, hortaz, Francoren Garapen Plan ezagunen esparruan garatu zen ekonomikoki, eta aipatutako legearen babesean, juridikoki. Lege horrek turismoko urbanizazioen eta hoteleko guneen sorrera ahalbidetzen zion ekimen pribatuari —gutxieneko baldintza batzuk betez gero—, berak aukeratutako lekuetan, tokiko hirigintza-planek aurreikusitakoa gorabehera. Legeak finkatutako *Centros de Interés Turístico Nacional* (Interes Nazionalako Turismorako Zentroak) edo CITN delakoek gutxienez 500 ostatu-toki eskaini behar zituzten, 10 hektareako lurzoru-azalera barne hartuta. Bistan denez, urbanizazio gehienek udalerraren etorkizuneko hazkundearen egitura zeharo baldintzatuko zuten.

Turismorako lehen CITN zentroa Aguadulcekoa (Roquetas de Mar, Almeria) izan zen, 1964an onetsia. 68 hektareako lurzoru —teorian— urbanizaezinean 7.000 ostatu-toki eskaini ziren bertan, hotelak eta bigarren etxebizitzak zenbatuta. Guztira, Interes Nazionalako Turismorako 78 zentro onartu ziren Espainian 1975era arte (2). Zentro gehienek sustatzaileak landa-lurzoru handien jabeak izan ziren, egun batetik bestera aberats egin zirenak. Finantza-kapitalak ere protagonismo handia eduki zuen CITNen garapenetan. Ekipamendu publikorik ez bazuten ere, kirol-portu handiez ederki hornitu zituzten, atzerriko turismoa bilatze aldera. Hala ere, urbanizaziotzar horiek asetzeko beharrezko azpiegiturak ez ziren ganoraz garatu eskuarki. Horretarako ez omen zegoen dirurik, ezta hirigintzaren osotasun-ikuspegirako borondaterik ere. Legea 1990ean izan zen ofizialki indargabetua, udalen esku-duntzen usurpazioa egotzita.

(1) GREENPEACE 2009: 9

(2) BARRADO, 2006: 77



Manuel Fraga eta Angier Biddle Duke - AEBko enbaxadorea -, Palomaresen (Almería), 1966an.



Spain is different, argazki-emultsioa mihise gainean. Joan Rabascal, 1977.

Espekulazioa eta gehiegikeria

Ekimen pribatuaren diru-gosea ez zuen demokrazia berriak ase. Areagotu zuela esatea ez da gehiegi. *Pelotazo* azkarraren kulturaren gizartean prozesua halabeharrezkotzat jo izan zen, gainera. Lurzoruarekin espekulatu egin zen, haren prezioa artifizialki igoaraziz, ondoren neurririk gabe eraikitzeko. Ez zen izan “*laissez faire*” politiko soila, askok esan bezala. Udalak prozesuaren zati ezinbestekoak izan ziren, sistemak epaile eta parte bihurtzen baitzituen. Hau da, urbanizatzeko eta eraikitzeko baimenak udalak berek ematen edo ukatzen zituzten —gaur egun bezalatsu—, ondoren gainbalioagatik eta lizentziengatik kobratuz. Sistema zital horretan, hortaz, lizentziak ukatzeak dirua ez jasotzea zekarren; eta udalak ere, jakina, diruaren beharrean zeuden.

Gehiegikeriak ez dira balizko *Trantsizio Demokratiko* delakora soilik mugatzen, ezta autonomia-erkidego jakin batera ere. Hala ere, Andaluziako itsasbaterrean pilatzen dira horietako ugari. Ezagunenetakoa bat, gutxienez bi lege hausten dituen Almeriako *Azata del Sol* hotel ezaguna dugu. Carbonerasko Udalak 2003ko urtarrilean eman zuen Algarrobicoko eraikintzarra eraikitzeko lizentzia. 2006ko otsailean, berriz, obrak behin-behinean geldiarazi zituzten, talde ekologisten salaketak zirela medio. 22 solairu eta 411 gelako eraikinaren eraispentaldarrikapena hirigintzaren espekulazioaren aurkako borroka-aren ikur bihurtu da. Hala ere, oraindik zutik dirau.

Zaila badirudi ere, larriagoa da Marbellan jazotakoa. Han 30.000 lizentzia ilegal inguru eman omen ziren GIL (*Grupo Independiente Liberal*) alderdia agintean zela, Malagako Ekologistak Martxan erakundeak Interneten salatu bezala. Haietatik, 18.000 *bakarrik* eraman ziren aurrera. Bada, 2010eko urtarilean onetsi berri den Plan Orokorra —azken 24 urteetan onartu duten bakarra, planek bakarrik 8 urtetarako iraunaldia dutenean— Jesus Gil zenaren garaian eraikitako 16.500 etxebizitza ilegal inguru di-da batean legalizatu egin ditu.

Oraingoz, dena den, 2002an eraikitako *Banana Beach* apartamentu-komplexu ezagunak ez omen du zorte berdina edukiko. Julian Muñoz alkate ohiak eman zion lizentzia urbanizazioari, eta orain 238 familia kaltetu daude, eraiste-agindua noiz iritsiko zain. Inork ez al zuen susmatu berdegune gisa kalifikatutako lurzoruan eraiki zirela *banana*-eraikinok? Gehiengo osoz Marbellako alkate aukeratutako Muñoz, oraingoz, sei zigor ezarri dizkio Justiziak lizentzia ilegalak emateagatik, tartean *Banana Beach*-ekoagatik. Alabaina, kartzelan bi urte eta erdi izan ondoren, kalean da jada, Justiziarekin adostutako hitzarmena dela medio. Ondorengo bi alkateek ere —Marisol Yagüe eta Tomás Reñones futbol jokalaria ohi— kartzelan bukatu zuten hirigintza-delituak egotzita. Auzo-lotsarik sentitzen ez duen zinegileren batek etekinik aterako balio foilettoi horri guztiari sikiera...

Kontzentraziotik sakabanatzera

“Benidormek nazioarteko bisitari ezjakinen selekzioa erakartzen duela dirudi. Arrunkeariaren kongregazioa: janari arrunta, arropa arrunta eta aisialdi arrunta. Guztia, hiri-mugen barne”. (3)

Ados. Benidorm ez da izango munduko hiririk politena, ez eta sofistikatuena ere. Haatik, trinkoa dela ezin da ukatu. Hiri batean txertatutako turismoan du funtsa, eta, etxe orratzetan oinarritutako haren hirigintza-ereduak, gutxienez, ez du lurzoru alferrik xahutzen. Modelo hori, hala ere, esportatzen zaila da, eta Francoren lagun egin zen Pedro Zaragoza izeneko alkate txit berezi bati asko zor dio. Zaragoza 17 urte eman zituen turismoa bultzatzen Benidormeko alkate gisa. Haren curriculumean, besteak beste, bikini janzteko lehen baimenaren lorpena, 1953an, edo Benidormeko Nazioarteko Abestiaren Jaialdiaren sorrera, 1959an; eta hirigintzaren alorrari dagokionez, Espainiako udalari oso baterako egiten zen lehen Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorra, 1956an. Pedro Bidagor izar-hirigile donostiarrak, beste arkitekto batzuekin batera, idatzitako lehen plan horren aldaketa batek ahalbidetuko zuen

(3) MAAS, 2000: 145



La Manga (Murtzia) 1963an, eta gaur egun / Paisajes Españoles



Algarrobicoko hotela. Almeriako Cabo de Gata-Nijarko Natura Parkean.

etxe orratzaren agerpen masiboa, kasu askotarako gehienezko altuera libre utzi baitzen, hondartzan itzalik ez eragiteko baldintza ia bakarrarekin. Lurzoruen jabe txiki asko egun batetik bestera hotelari bihurtu ziren (4), eta Benidorm, denborarekin, munduan biztanleko etxe orratz gehien duen hiria.

Haatik, Espainiako turismoak atzerritarren dirua betidanik bilatu duenez, haien eskakizunetara ere moldatu egin behar izan da, eskaera dibertsifikatuz. Hortaz, gainerako Europako herrialdeetan bezala, Espainiako kostaldeko eraikuntzak lurralde osotik mugarik gabe barreiatzen ari dira azken hamarkadotan. [Etxebizitza familiabakarren eredu hedagarria turismo masiboaren modelo suntsitzailearekin elkartu da, eta emaitza zinez okagarria da.](#) Dentsitate baxuko kolonizazioak itsasbazterren kontzeptua fisikoki zabaldu du, halabeharrez, eta itsasoa metro eskas batzuetara ez duten urbanizazioei golf-zelai handiaren *erakargarritasuna* eskaini zaie. Berdeak direnez, golf-zelaiak ekologikoak direla pentsatzen dutenak ere badira, baina 60 ha-ko golf-zelai ertain bakoitzak urtean 0,7 hm³ ur behar ditu, hots, 12.000 biztanleko hiri batek adina (5). Soropila mantentzeko fungizidek eta pestizidek ere ez diete onik egiten lurrazpiko akuiferoei. Baina *green*-en inguruko etxeak garestiago eta azkarrago saltzen dira, eta hori da benetan axola duena.

Kanpoko errietak

Espainiako politikari eta sustatzaileen artean ez dago autokritikarik, baina. Iritzien bila kanpoko hedabideetara jo beharra dago. CNN telebista-kateak, esaterako, “*Spain: Costa del Coni*” (“*Espainia: Iruzuraren kostaldea*”) izenburuko dokumentala eman zuen 2007ko otsailean, ingelesez, Costa del Sol-eko

espekulazioaren inguruan. Ez da kasualitatea. Izan ere, tartean atzerritar asko harrapatu dituzte Andaluziako kostaldeko lizentzia ilegalek.

Espainian nekez aurkitu ahal da antzeko lanik. Alderantziz. 2010eko martxoaren 15ean zentsura-salaketa larria plazaratu zuen Miguel Ángel Losada ingeniari eta Hidraulikako katedradunak *El País* egunkarian. Antza, Cristina Narbona ingurumen-ministroak telesail bat enkargatu zion TVE kate publikoari 2006an, gerora *Las riberas del mar océano* deituko zena. Bada, Losadak, telesaileko arduradunak, ezagutarazi zuen bi minutu kentzeko agindu zuela Espainiako Ingurumen Ministerioak, arazo teknikoak argudiatuta. Zentsura-ariketa onartezina, areago erakunde publiko batengandik.

[Europar Batasunak, bestalde, hiru txosten onetsi ditu azken bost urteotan Espainiako hirigintza basatia deitoratuz.](#) 2005eko abenduan Fortou txostena onartu zen, Valentziako LRAU legearen neurrigabekeria salatzen; 2007ko ekainean, Libicki-Cashman txostena, Andaluzia, Valentzia eta Madrilgo urbanizazio hedakorra gaitzesteko; eta 2009ko martxoan, Auken txostena, Espainiako urbanizazio masiboa eta jokabide espekulatiboa deitoratzeko. Hiru ebazpenotan, Espainiako Alderdi Popularreko zein Alderdi Sozialistako diputatuak ia bakarrik gelditu ziren.

“*Europar hirigintza masiboa ikusi izan dut, baina Espainiako surrealista da*”. Adierazpena Margrete Auken eurodiputatu daniarrak soitu.es agerkari digitalari egin zion 2009ko otsailaren 11n. Harrigarria da arestian aipatutako hiru kasu horiei Espainiako ohiko hedabideetan —Internetetik at— eman zaien oihartzun eskasa. Aukenek egindako azken txostenak,

(4) BAÑOS, 2009: 42

(5) GREENPEACE, 2007: 41



Marbella (Malaga) 1961ean, eta gaur egun / Paisajes Españoles



Benidorm (Alacant) 1959an, eta gaur egun / Paisajes Españoles.



hala ere, benetako ondorioak edukiko dituen azken ohartarazpena dirudi. Europar Batasunak lurraldearen antolakuntzarako eskumenak eduki ez arren, PPko eta PSOEko politikariek ozen eta bizkor gogorarazi duten legez, Espainiak haren turismo-urbanizaziotarren azpiegitura ugari finantzatzeko Europako egitura-funtsak baliatu izan ditu. Diru-laguntzen txorrota behin betiko itxi daiteke orain.

Eta orain, zer?

Azken hamarkadotan Espainiako turismoaren industriak lurzorua espekulazio-prozesua nabarmen bultzatu duela argi dago. Eskaintza turistikoaren neurrigabekeriak kostaldea arpilatu eta suntsitu egin du. Itsasorako fatxada erabat okupatu egin da. Kalitatezko natura-gune bakanak saldu egin dira, epe laburreko mozkinen bila. Eta orain itsasotik gertuko mendimagalen txanda da...

Egoera tamalgarria da, eta, zer edo zer konponduko bada, Europar Batasunak eragin dezakeen presioagatik izango da, hirigintza-ereduaren aldaketa nekez etorriko baita Andaluzia, Madril edo Valentziatik. Kostaldearen arpilatzea sistemikoa bezain sistematikoa izan da Espainian. Lehen aipatutako 1994ko Valentziako LRAU famatua (*Ley Reguladora de la Actividad Urbanística*) 2006an indargabetu —edo soilik itxuraldatu— bazen, Europako ebazpenek eragindako presioagatik izan zen. Horrez gain, LRAU legeak sortutako *eragile urbanizatzailea* —jabea izan gabe lurzorua kudeatu dezakeen figura juridikoa— Espainiako Estatuko gainerako autonomia-erkidegoen lurzoru-legeetara esportatu egin da, Europako kontratazio publikoaren esleipen-legea urratzen badu ere.

Asmo oneko hainbat eroslek ezagutu izan du, behin jabe-goa erosi ondoren, hura eraitsi beharra zegoela, eskrupulu

gabeko tokiko administrazioen hirigintza-gehiegikeriagatik zein 1988ko Itsasertzeko Legearen gauzatze atzeraeraginez-koagatik. Kalte-ordainik gabe, gainera, legez kanpo eraikitako ondasunek ez baitute inolako baliorik. **Itsasertzeko Legerik egon badago, baina kasu askotan ez zen bere garaian bete-arazi, eta orain komerkiak eta arrangurak datoz.**

Akatsetatik ikasten omen da, baina errealitatea egoskorra da. 1973ko petrolioaren krisialdiak Espainiako kostaldearen arpilatze-prozesua nabarmen eten bazuen ere, behin igarota, laster ekin zitzaion berriz ere hondartzetako bazterrak hormigonatzeari. Berdina gertatuko al da azken bi urteotako krisi ekonomikoa eta gero? Galdera erretorikoa da, bai, denok baitakigu erantzuna.

Bibliografia

- BAÑOS CASTIÑEIRA, C. J. (1999): “*Modelos turísticos locales. Análisis comparado de dos destinos de la Costa Blanca*”, Investigaciones Geográficas 21, 35-57 [ISSN 0213-4691].
- BARRADO TIMÓN, D. eta GALIANA MARTÍN, L. (2006): “*Los Centros de Interés Turístico Nacional y el despegue del turismo de masas en España*”, Investigaciones Geográficas, 73-93 [ISSN 0213-4691].
- GREENPEACE (2009): “*Destrucción a toda costa. Situación del litoral español y sus espacios protegidos*” [http://tiki.com/11954].
- GREENPEACE (2007): “*El negocio del agua en la cuenca del Segura. Una investigación sobre el mercado negro del agua, los regadíos ilegales, la especulación urbanística y la contaminación*” [http://tiki.com/11955].
- MAAS, W. (2000): *Costa ibérica. Hacia la ciudad del ocio*. MVRDV, Actar, Barcelona [ISBN 84-89698-95-3].



* Unai Fernandez de Betoño arkitektoa eta EHUko irakaslea da.